

2020ko Aurrekontu Irekiak egiteko protokoloa

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

[2019KO URTARRILA]

1. Sarrera.

2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu ekintzarako lidergo eta orientazio tresna nagusia. Eraldaketa ekonomikorako eta sozialerako palanka bat, gure lurraldearen lehian eta garapen jasangarrian etapa berri batera iristeko, erakundeak dituen tresna guztiez baliatzen dena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren lehentasunezko helburu gisa ezarri du **Gipuzkoako gobernu berrasmaketa**, lurraldearen garapena eta eraldaketa sustatuko duen motor gisa. Horretarako, konpromiso korporatibo eta zeharkako bat hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko pertsona eta departamentu guztiei eragingo dien kultura eta antolaketa aldaketa batekin. Aurrez aurreko neurriak ezarriko dira administrazioa arrazionalizatzeak eta soiltzeak bizkorragoak eta eraginkorragoak bihurtu gaitzan; politika publiko guztiak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeak praktika aurreratuak hedatu eta homogeneizatzeko dira; garapen profesionaleko eta gure pertsonen kudeaketako politikak berrikuntza dira, zerbitzari publikoaren profil berri bat bilatzeko, zerbitzari gaitua, balio anitzekoa eta balio publikoa sortzera bideratua; eta, bereziki, **bide azkarrak irekiko dira herritarren partaidetzarako, eragile anitzaren elkarlanerako eta gardentasunerako**, erakundean konfiantza berreskuratzeko.

Herritarren partaidetzarako, eragile anitzaren elkarlanerako eta gardentasunerako bide azkarrak irekitze horretan kokatu zen **1/2010 Foru Arauaren, uztailaren 8koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren** berrikuspena, aipatutako foru arauaren 46. artikuluan, herritarren partaidetzaren sistemaren ebaluazio globalari buruzkoan, ezarritako konpromisoei erantzuten dien partaidetzazko metodologia bat erabilita.

Berrikuspen prozesu hori hainbat fasetan egin zen:

Lehen fasean (2017/01/12–2017/01/30) lau talde (edo panel) sortu ziren, partaidetzazko prozesuan gure gizartea modu plural eta heterogeneoan ordezkatzeko duten hainbat eragile integratzeko helburuarekin. Hain zuzen, lehen taldea osatu zuten maila guztietako euskal erakundeetako langile teknikoei osatu zuten (partaidetzazko esperientziak dituzten udalak, EUDL, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak eta/edo Eusko Jaurlaritzako organismoetakoak). Bigarren taldea osatu zuten Partaidetzako Foru Araua berrikusteko balio handiko ezagutzak dituzten partaidetza alorreko adituek (Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko eta abarrek adituak). Hirugarren taldea ordezkari politikoak osatu zuten, eta laugarrena ordezkari sozialek, erakunde sozialak eta sektorialak, foro eta kontseilu espezifikoak eta beste izaera batzuetako erakundeak, adibidez, auzo elkarteak, barne.

Bigarren fasean (2017/02/01–2017/03/30), lau taldeek lau saiotan jorratu zituzten 1/2010 Foru Araua, uztailaren 8koa, Partaidetzari buruzkoa, osatzen zuten alderdiak. Haien helburua izan zen arauaren edukia kontrastatzea eta haren inguruan eztabaidatzea, haren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta ematen dituen aukerak bilatzeko, baita berrikusi eta/edo eguneratu daitezkeen atal eta edukiak nabarmentzea ere.

Lau lan taldeek egindako proposamenak, ekarpenak, emandako ideiak eta gomendioak aztertu ondoren, hirugarren fasean (2017/03/23–2017/04/23), txosten tekniko eragile bat egin zen. Txosten horretan jaso ziren prozesutik lortutako ondorio nagusiak, eta Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauaren berrikuspenaren azken dokumentua idazteko tresna kolektibo moduan erabili zen.

Horrekin batera, partaidetza ekimen horren barruan jasotako ekarpenak itzulketa prozesu batean helarazi zitzaizkien (2017/03/23–2017/03/30) Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei, eta, bereziki, parte hartu zuten pertsonen, jakinarazteko zein izan zen beren ekarpenen eta prozesuaren emaitza. Halaber, arauaren eguneratzea bihurtzeko bidean dagoen dokumentu bat aurkeztu zen.

Fase horietan ekarpenak panel edo lan talde parte hartzaileetatik ekarpenak jaso ziren, eta horien ondoren, Partaidetzari buruzko Foru Arauak barne kontraste fase bat jasan zuen. Bertan foru departamentu guztietako langileek hartu zuten parte.

Partaidetzari buruzko Foru Araua berrikusteko partaidetza prozesu hori uztaillaren 3an amaitu zen, Gipuzkoako Batzar Nagusietan kontraste politikoa jaso zuenean.

Prozesu horren guztiaren ondorioz, Foru Aldundiak **5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, Herriarren Partaidetzari buruzkoa**, onartu zuen: araudia eguneratua, hainbat eragile sozialek, adituk, teknikariek eta ordezkari politikok kontrastatutakoa.

5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koa, Herriarren Partaidetzari buruzkoak, haren hitzaurrean dio herriarren partaidetza erdigunean egon behar dela, herriarrek modu erabakigarrian politika publikoak eta horiek egikaritzeko edo kudeatzeko modua ezartzeko ekarpenak egiteko gaitutako modu eta prozeduren bitartez, ekarpena egiteko politika publikoak eta politika horiek egikaritzeko eta garatzeko modua ezartzeko orduan, bere aplikazio esparruan, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde historikoaren gobernu organo exekutibo moduan dituen eskumenen barruan.

Foru arau horren helburua da hobeto bermatzea lurralde historikoan herriarren partaidetzaren prozedurak eraginkorrako eta egingarriago bihurtzearen interes orokorra. Horrek efizientzia printzipioa asetzen du, herriarren partaidetzarako tresnen garapenean ekonomia hobea ezartzeko asmoa duelako eta, horrela, hori egitearen karga ezabatzen da. Arauaren funtsezko ardatzetako bat da herriarrek partaidetza prozesuen inguruko informazioa gardentasunez iritsi ahal izatea, baita prozesu horiek abian jartzearen ingurukoa ere. Halaber, zorrozki mugatzen ditu partaidetza prozesuak abian jartzeko egin beharrekoak, ordenamendu juridikoa errespetatuta; beraz, proportzionaltasun printzipioa eta segurtasun juridikoarena bermatzen ditu.

5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herriarren Partaidetzari buruzkoaren, 26. artikulua, **aurrekontuak egiteko herriarren partaidetza prozesuen** ingurukoak, honako hau xedatzen du:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, dituen eskumenen eremuan, herriarrek parte hartzeko prozesuak ezarriko ditu, hala nola **partaidetzazko aurrekontuak**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetako alderdi batzuk lehenesten laguntzeko, herriarren partaidetza maila handitzeko eta hobetzeko.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztuko du, Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren irizpide orokorrak erabakitzen dituen Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez zehaztu ere, gastuen partiden zer ehuneko edo zenbateko gordeko diren partaidetzazko aurrekontuen prozeduraren bidez erabakitzeko.
3. Aurreko apartatuko herriarren partaidetza prozesuak erregelamenduz garatuko dira, III. tituluko lehenengo kapituluaren ezarritako printzipio eta prozeduren arabera (herriarren partaidetzaren tresnei buruzkoa), Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuak egiteko prozeduraren berezitasunak errespetatzeaz gain. Beti ere, behar besteko aurrerapenaz egin behar da, partaidetza prozesuaren emaitzak dagokion aurrekontuen foru arauaren tramitazioan txertatu ahal izateko.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetzazko aurrekontuen prozesuak sustatuko eta hedatuko ditu ekintza positiboen, informazioaren, prestakuntzaren eta sensibilizazioaren bidez, eta unibertsaltasunaren eta autoarauketaren printzipioen arabera, herriarren partaidetza bultzatzeko eta errazteko.

Aurrekontuak egitean herriarrek parte hartzea ezinbesteko tresna da gobernu onerako eta botere publikoen jarduneko gardentasunerako, eta funtsezko elementua da Foru Aldundiak politika publikoak ezartzeko eta horiek kudeatzeko, Gipuzkoako lurralde historikoko gobernu organo exekutibo moduan.

2. Helburuak.

Partaidetzazko aurrekontuen ereduaren proposamenak **lehentasunezko helburu** moduan ditu honako hauek:

- a. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren alderdi jakin batzuetan lehentasunak ezartzen laguntzea, herritarren partaidetza handitzeko eta hobetzeko helburuarekin.
- b. Bultzatzea unibertsaltasun eta autoarautze printzipioetan oinarritutako partaidetzazko aurrekontuetako prozesuak sustatzea eta hedatzea, ekintza positiboen, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez, herritarrek aurrekontuetan parte hartzea sustatzeko eta errazteko.

Proposamen honek bere **helburutzat** hartzen ditu 5/2018 Foru Arauan, azaroaren 12koan, Herritarren Partaidetzari buruzkoan, azalduak:

- a. Emakumeen eta gizonen partaidetza sustatzea eta bultzatzea, baldintza berdinetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko gai publikoetan, eta partaidetza hori Foru Administrazioaren funtzionamenduan, beronen kudeaketa maila desberdinetan.
- b. Herritarren eta herritarrek antolatzen diren taldeen eskubide demokratikoak garatzea, ordezkatzaileko eskubideak eta teknikak hobetzen dituzten partaidetza bidezko demokraziaren prozesu, praktika eta tresnak baliatuta.
- c. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna arautzen duten printzipioak maila orotara zabaltzen dituen herritarren partaidetzaren kultura sustatzea eta finkatzea.
- d. Emakumeen eta gizonen inplikazio orekatua bultzatzea kudeaketa publikoan, arlo publikoa interesatzen zaien herritar aktiboak izatearren.
- e. Gobernuaren jardura gardenago egitea eta gobernu jardueraren eta gizartearen arteko lotura egituratzea Lurralde Historikoan.
- f. Botere publikoak gizartearen behar eta dinamiketara zabal daitezen bultzatzea.
- g. Ekintza politikoa eta administratiboa eraginkorra izan dadin bultzatzea gizarte elkarlanaren bidez, hain zuzen politika publikoen prestakuntzan eta lortutako emaitzen balorazioan baliatu ahal izatearren herritarren ezaguerak eta esperientziak ematen duten aberastasuna, emakumeen ekarpenak ikusezin bihurtu gabe.
- h. Elkartasun eta gizarte integrazio maila handiagoak bermatzea, espezifikoki lagunduz bai genero berdintasunerako bidean bai ekonomia, kulturala edota gizarte aldetiko bitarteko gutxiago dituztelako beren interesak babesteko unean desabantailazko egoeran dauden pertsonen interesak babesten.
- i. Elkarrekin sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea.
- j. Lurralde Historikoko toki erakundeekin elkarlanean aritzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta erakunde horien gobernu eta administrazio jardueran partaidetza prozesuak aurrera eramateko.

3. Oinarrizko printzipioak.

Partaidetzazko aurrekontuen proposamenak beretzat hartzen ditu 5/2018 Foru Arauan, azaroaren 12koan, Herritarren Partaidetzari buruzkoan, azalduak **oinarrizko printzipioak**:

- a. Unibertsaltasuna; horren arabera, partaidetzarako eskubidea herritar guztiei aplikatu behar zaie, Gipuzkoan dagoen lurralde, gizarte eta ekonomia aniztasuna kontuan hartuta.
- b. Transbertsalitatea; horren arabera, herritarrek duten partaidetzarako eskubidea foru arau honen aplikazio eremuko maila guztietan txertatuko da, jarduketara ardatz transbertsal gisa.

- c. Gardentasuna; horren arabera, informazio publiko guztia eskuragarria da eta herritarrek modu proaktiboan parte hartzearen zerbitzura dago.
- d. Egiaskotasuna; horren arabera, informazio publikoak egiazkoa eta zehatza izan behar du, eta ziurtatu egin behar da egiazkotasuna, fidagarritasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta zaintza katea egiaztatua duten dokumentuetatik datorrela.
- e. Eraginkortasuna; horren arabera, administrazio publikoek eta herritarrek lankidetzan jardun behar dute, herritarren partaidetzaren egikaritza erabilgarria eta bideragarria izan dadin, gai publikoak modu eraginkorrean kudeatzeko lagungarri izanez.
- f. Iraunkortasuna; horren arabera, partaidetzarako tresnak denboran etengabe eta modu jasangarrian parte hartzea ahalbidetuko duen prozesu ikuspegi batean kokatu behar dira.
- g. Erraztasuna eta ulermena; horren arabera, herritarrek partaidetza prozesuetan jasotzen duten informazioa soilik eta ulergarria izango da, beraren izaera kontuan hartuta.
- h. Politika publikoak abian jartzean, gauzatzean eta ebaluatzean, genero ikuspegia txertatzen dela bermatuko da.
- i. Irisgarritasuna, diskriminazio teknologikorik eza eta bitartekoak eta hizkuntzak egokitzea; horien arabera, partaidetzarako gaitutako bide eta bitartekoek ez dute bazterketa faktore bat izan behar biztanleriaren sektore jakin batzuentzat.
- j. Gobernantza demokratikoa; horren arabera, Gobernuaren ekintza ikuspegi global batetik gauzatzen da, eta, erabakiak hartzeko garaian, herritarren eta administrazio publikoetako gobernu organoen arteko elkarrekintza ahalbidetzen duten mekanismoak, prozesuak eta erregelak integratzen ditu ikuspegi horrek.
- k. Kontu ematea; horren arabera, herritarrek politika publikoen kudeaketaren ebaluazioa egin ahal izango dute.
- l. Fede ona; horren arabera, herritarrek, foru arau honetan aitortutako eskubideak gauzatzerakoan, fede onaren eskakizunen arabera jokatu dute, fede on gisa ulertuta une bakoitzeko gizartearen pertzepzioarekin bat datorren jokabide leiala; eta administrazio publikoen jarduerak ere eskakizun horiei men egin beharko die.
- m. Desgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala, Gipuzkoako Lurralde Historikoen eremuan garatzen diren herritarren partaidetza prozesuetan.
- n. Gizarte egituraketa; horren arabera, administrazio publikoek partaidetza eremu publikoetan diharduten gizarte erakunde guztien partaidetza antolatua, elkartua eta aktiboa sustatuko dute, demokrazia sozial aurreratu eta parte hartzailearen mesedetan.

Protokolo hau diseinatzerakoan, eta Herritarren Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauan jasotzen den moduan, kontuan hartu ditugu emakumeen partaidetzak izaten dituen muga eta oztopoak. Emakumeek diskriminazio mota asko jasaten dute; emakumeen kasuan bat egiten dute desberdintasun mota ezberdinekin (adina, jatorria, etab...), eta horiek generoarekin bat egiten dutenean, diskriminazio modu kualitatiboki desberdin bat dute emaitza. Zailagoa da diskriminazio horri ekitea eta, horrenbestez, jarduera espezifiko eskatzen du, zuzenean emakumeen partaidetza soziala bultzatzera zuzentzen dena, hain zuzen emakumeek gizarte demokratiko baten garapenean egiten duten ekarpena, gizonekiko berdintasunez egina, benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Protokolo honetan lan metodologiari dagozkion neurri zehatzak jasoko ditugu, helburu transbertsal batekin, hau da, sustatzea eta bermatzea herritarren partaidetzan emakumeen eta gizonen arteko oreka, generoak beste desberdintasun ardatz batzuekin bat egiten duela kontuan hartzen duena, betiere partaidetzazko aurrekontuen eremuan erabiltzen ditugun bide eta esparru guztietara genero politikak helarazteko xedez, hala agintzen baitute 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak (15. artikulua), EAEko 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak (3. artikulua), eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak (36. eta 37. artikulua), genero berdintasunak eta sexuen arteko orekak gidatutako herritarren partaidetza sustatzearen.

Horrez gain, eta 2020ko aurrekontu irekien prozesuari begira, genero berdintasunaren ikuspegia honela integratuko da:

O Prozesuaren diseinuan:

- ✓ Genero berdintasuna prozesuaren helburuetako bat izango da.
 - ✓ Genero ikuspegia kontuan hartuko da lan taldean.
 - ✓ Prozesu osoaren nahiz prozesuko fase bakoitzaren planifikazioan.
- o Prozesuaren garapenean:
- ✓ Topaketetan berariaz landuko da genero berdintasunaren gaia.
 - ✓ Gaiak planteatzerakoan, ohiko genero rola zalantzan jartzea bilatuko da.
- o Prozesuaren ebaluazioan:
- ✓ Prozesuaren datuak genero ikuspegitik atera eta aztertuko dira.
 - ✓ Prozesu osoan zehar genero ikuspegitik gauzatu diren ekintzak ebaluatuko dira.

4. Partaidetzazko aurrekontuen eredu proposamena.

Partaidetzazko aurrekontuen eredu proposamenak bermatuko du herritarren partaidetza egiaz txertatuko dela foru aurrekontuak sortzean, eta helburuak finkatuko dituela, ekintza proposamenak egokituko zaizkiela planteatutako helburuei eta aurreikusitako pertsona eta partaidetzazko entitateak, ekintzak eta partaidetza bideak, programatutako informazio bideak eta fluxuak eta ezarritako lan protokoloak identifikatuko direla, prozesuak egoki funtzionatzen duela bermatzeko.

Proposamen horrek kontuan hartuko du honako hau, eta koherentea izango da guztiz honako honekin:

1. Etorkizuna Eraikizen esparruan aurreikusitako lanaren erronkak, zutabeak, ardatzak, proiektuak eta metodologiak
2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren barruan ezarritako lehentasunezko helburuak.
3. 5/2018 Foru Arauan, azaroaren 12koan, Herritarren Partaidetzari buruzkoan jasotako gomendioak eta eskakizunak.

Honako egun hauek hartuko ditu kontuan partaidetzazko aurrekontuen eredu proposamenak.

1. Foru hauteskundeak egiteko aurreikusitako data: **2019ko maiatzaren 26a**.
2. Hauteskunde kanpaina: **2019ko maiatzaren 10a - 2019ko maiatzaren 25a**. Hauteskunde kanpainak 15 egun iraungo du, eta hauteskunde deialdiaren ondorengo hogeita hemezortzigarren egunean hasiko da, eta, edozein kasutan, bozketaren aurreko eguneko 00:00etan amaituko da.
3. Deialdiaren dekretua (Ministroen Kontseiluak onartzen du, Hauteskundeei buruzko Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 185. artikuluari jarraituz) **apirilaren 1ean** emango da, eta hauteskunde garaia **apirilaren 2an** hasiko da.
4. Debekatuta dago hauteskunde garaian zuzenean edo zeharka botere publikoek finantzatutako eta egindakoen edo lorpenen aipamenak edo hauteskundeetara aurkeztutako erakunde politikoren batek beren kanpainan erabilitako esamoldeak edo antzekoak dituen ekitaldi oro. Horrez gain, aldi horretan debekatuta dago ere obra edo zerbitzu publikoak edo haien proiektuak inauguratzeko edozein ekitaldi, edozein dela ere erabilitako izendapena. Obra edo zerbitzu horiek aldi horretan abian jarri daitezke, ordea.

5. **5/2018ko Foru Arauak** ezarritako epe baliogabeak. Foru Arauak arautzen du, partaidetza prozesuak ezingo direla egin Batzar Nagusien hauteskundearen deialdiaren eta diputatu nagusi berriak kargua hartu artean.

5. Partaidetzazko aurrekontuen eredua abian jartzea.

Aurreikusitako partaidetzazko aurrekontuak **11 FASETAN** jarriko dira abian:

1. FASEA. Lan talde bat osatzea foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko departamentuen arteko batzordean (DAB): 2019ko urtarrila.

Lan talde bat osatuko da **foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko**. Honako hauek izango dira foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko lan talde horren parte:

1. Diputatu Nagusiaren Alorra.
2. Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia.
3. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusia.
4. Komunikazio Zuzendaritza Nagusia.
5. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza.

Honako hauek izango dira funtzioak:

1. Partaidetzazko aurrekontuak egiteko aurreikusi den partaidetza metodologia kontrastatzea eta baliozkotzea.
2. Behin betiko partaidetza metodologia onartze partaidetzazko aurrekontuetarako.
3. Identifikatzea eta definitzea foru partaidetzazko aurrekontuetan garatu daitezkeen proiektu guztiek bete beharreko baldintzak.
4. Komunikazio estrategia integral bat diseinatzea, partaidetzazko aurrekontuen prozesuari lotua.
5. Lurraldeko eta sektoreko topaketak ondo antolatzeko beharrezko kudeaketa eta koordinazio lanak egitea.
6. Lan guztiak gainbegiratzea eta behar bezala informatuta edukitzea departamentuen arteko batzordea (DAB) partaidetzazko aurrekontuen prozesuko aurrerapenen eta garatutako neurrian inguruan.

2. FASEA. Aurrekontuak egitean herritarrek parte hartzeko prozesuarentzako protokoloa onartzea: 2019ko urtarrila - 2019ko otsaila.

5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren, 17. artikulua xedatzen duenez, Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak finkatuko du zein unetan irekitzen den aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza prozesua. Prozesu hori irekitzeko momentua zehaztutakoan, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak (herritarren partaidetzaren esparruko organo eskudunak), gehienez ere **hilabeteko** epean, **partaidetza prozesuaren protokoloa** onartuko du.

5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren, 26. artikuluan, aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza prozesuen ingurukoan, xedatutakoari jarraikiz, **Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak** diseinatuko du partaidetzazko aurrekontuen prozesua aurrera eramateko partaidetza metodologia.

Metodologia hori foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko lan taldeak kontrastatuko eta balioztatuko du.

20 egun baliouduneko epean, aurrez aurreko bideak eta birtualak gaituko dira herritarren proposamenak jasotzeko, foru arauaren aurreproiektuen eta xedapen orokorren proiektuen informazio publikoko izapideari jarraituz, 6/2005 Foru Arauaren, uztailaren 12koaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoaren, 70.1.d) artikuluan eskatutakoari.

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak herritarrek iritsarazitako proposamenak aztertuko ditu, eta **txosten** bat egingo du egindako proposamenak aztertzeko eta horiei erantzun arrazoitua emateko. **Foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko lan taldeak** onartuko du partaidetzazko aurrekontuen prozesua egiteko aurreikusitako **behin betiko metodologia**.

Behin aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza prozesuarentzako protokoloa onartutakoan, haren testu osoa partaidetza alorreko organo eskudunaren egoitza elektronikoan, atarian edo webgunean argitaratuko da, eta prozesua hasteko data ezarriko da bertan. Gipuzkoako Foru Aldundiak egoki iritzitako beste edozein tresna erabili ahal izango du irisgarritasunaren eta diskriminazio teknologiko ezaren printzipioak bermatzeko.

Herritarren partaidetzaren alorreko organo eskudunak bermatuko du aurrekontuak egiteko herritarren partaidetza prozesuaren irekierari eta garapenari buruzko informazioa ahal beste zabaltzen dela, herritarren partaidetza ahal beste hedatzeko helburuarekin. Edozein kasutan, aipatutako protokoloaren onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko da, eta hizkera inklusiboarekin idatzita egongo da, emakumeak eta gizonak berdin ikusarazteko, eta genero estereotipoak erreproduzitzen dituzten irudiak erabiltzea saihestuko du. Horrez gain, hizkera soila eta ulerterraza erabiliko du.

3. FASEA. Identifikatzea eta definitzea foru partaidetzazko aurrekontuetan sartu daitezkeen proiektu guztiek bete beharreko baldintzak: 2019ko otsaila.

Foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko lan taldeak, departamentuen arteko batzordean (DAB) sortutakoak, identifikatuko eta bilduko ditu foru partaidetzazko aurrekontuetan garatu daitezkeen proiektu guztiek bete beharreko baldintzak.

Horretarako, **baldintza kuantitatiboak eta kualitatiboak** ezarri dira.

✓ **Baldintza kuantitatiboak:**

- Proiektuek beren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa bermatu beharko dute, baita beren jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioa ere.

✓ **Baldintza kualitatiboak:**

- Hautatutako proiektuek koherentzia osoa izango dute Etorkizuna Eraikizen esparruan aurreikusitako lanen erronkekin, zutabeekin, ardatzekin, proiektuekin eta metodologiekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoan identifikatutako helburuekin eta 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koan, Herritarren Partaidetzari buruzkoan, ezarritako gomendioekin eta eskakizunekin.
- Hautatutako proiektuek apustua egingo dute lurralde lehiakor, adimendun, orekatu eta sortzaile baten alde, aberastasuna, pertsonen ongizatea, herritarren elkarbizitza eta genero eta hizkuntza berdintasuna bermatuko duen lurralde baten alde.
- Hautatutako proiektuek Gipuzkoako gobernantza onari ekarpena egingo diote.
- Hautatutako proiektuek gardentasuna eta kontu ematea egikaritutako proiektuen

- kudeaketako lan metodologia moduan txertatuko dute.
- Proiektuak honako 6 kategoria/gaitan sailkatuko dira:

1. Ekonomia sustapena.
2. Politika sozialak.
3. Garraioa eta bide azpiegiturak.
4. Landa ingurunea eta lurralde oreka.
5. Kultura, kirola eta gazteria.
6. Zeharkako gaiak/Beste gai batzuk.

4. FASEA. Partaidetzazko aurrekontuen aurreko eta prozesuaren bitarteko komunikazio estrategia bat diseinatzea eta egikaritzea: 2019ko otsaila - 2019ko abendua.

Foru partaidetzazko aurrekontuak kudeatzeko lan taldeak komunikazio estrategia integral bat diseinatuko du, aukera emango duena partaidetzazko aurrekontuen prozesu osoa komunikatzeko kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko eta, orientazio moduan, honako ekimen hauek jarri ditzake abian:

- ✓ **Erakundearen webgunean informazio zehatza ematea,** baita partaidetzaren atarian ere, grafiko erakargarri, soil eta ulerterrazekin.
- ✓ **Sare sozialen bidezko kanpaina birala,** dibulgazio materialak hedatzea erraztuko duena.
- ✓ **Ekimena sustatzeko bideoa/spota,** parte hartzeko gonbidapena egingo duena eta azalduko duena zein garrantzitsua den herritarren iritzia sartzea foru aurrekontuak egitean (laneko epeengatik astirik ematen ez badu, 2019ko irailetik aurrera garatu beharreko ekimenekin lotuta egon daiteke).
- ✓ **Informazio karpa/modulu ibiltariak,** Gipuzkoako lurralde historikoko hainbat udalerritatik ibiliko direnak, partaidetzazko ekimen horren izaeraren, dinamikaren, epeen eta irismenaren berri emateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuko du partaidetzazko aurrekontuetako prozesuak sustatzea eta hedatzea, ekintza positiboen, informazioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez, herritarrek aurrekontuetan parte hartzea sustatzeko eta errazteko.

5. FASEA. Herritarren proposamenak biltzea: 2019ko martxoa.

Herritarren proposamenak fitxa baten bidez jasoko dira (paperean eta digitalki bete ahal izango da), eta honako hauek jasoko ditu datu garrantzitsu moduan:

Zeintzuk dira 2020ko foru aurrekontuetarako zure proposamenak? Zer proposatu nahiko zenuke? Zer hobetu nahiko zenuke?

- ✓ Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea, Udalerria eta helbide elektronikoa.
- ✓ Proposamenaren izena.
- ✓ Proposamenaren deskribapen laburra.

Herritarren proposamenak **4 kanalen bidez jasoko dira:**

1. **Herritarren proposamenak aurrez aurreko karpetan jasotzea.** Otsaileko eta martxoko hilabeteetarako egutegi bat ezarriko da herritarren proposamenak (bi lekutan aldi berean egun bakoitzean) aurrez aurreko karpetan eta kalean jasotzeko, lurraldeko 25 udalerritan.

2. **Herritarren proposamenak lurralde eta topaketetan tematikotan jasotzea.** Aurrez aurreko karpakin batera, eta horiekin koordinatuta, **lurraldeko topaketak** egingo dira, eta bertan parte hartu ahal izango dute pertsonak banaka eta **5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren**, 8. artikuluan (parte hartzeko eskubidea) identifikatutako taldeek, partaidetzazko aurrekontuei lotutako beren proposamenak aurkezteko.

Topaketak modu egokian antolatzeko beharrezko kudeaketa eta koordinazio lanak foru partaidetzazko aurrekontuen kudeaketarako lan taldeak egingo ditu. Lan talde horrek gainbegiratuko ditu lan guztiak eta behar bezala informatuko du departamentuen arteko batzordea (DAB) egindako aurrerapenen eta hartutako neurrien inguruan.

Topaketen gidoiak honako hauek izango ditu, nahitaez:

- Ekimenaren aurkezpena.
- Prozesuaren azalpena: Faseak, epeak, proposamenek bete beharreko baldintzak, egutegia, trazabilitatea eta abar.
- Herritarren proposamenak jasotzea (partaidetza dinamika, kategorizatzeko sistema eta irizpideak eta abar).
- Sarean biltzeko kanalaren erabiltzailearen esperientzia azaltzea (formulario digitala betetzeko gomendioak, epeak eta abar).
- Agurra, eskerrak eta itxiera.
- Topaketek ez dute 2 ordu baino gehiago iraungo.
- Topaketa bakoitzaren akta egiteko informazioa jasoko da.

3. **Herritarren proposamenak sareko formularioaren bitartez jasotzea.** Herritarrek beren proposamenak gipuzkoa.eus atarian dagoen formulario digitalaren bidez helarazi ahal izango dituzte.

Aurreko logistika behar da proposamenak formulario digitalaren bidez biltzeko: Sarean parte hartzeko epea, formulario digitalaren diseinua (menu zabalgarria, identifikazio pertsonaleko datuekin, proposamenaren izendapen eta deskribapen laburrekin, gaiarekin, kokapenarekin eta abar).

4. **Herritarren proposamenak Postaz eta Aldundiko bulego zentrolean jasotzea.** Herritarrek beren proposamenak postaz edo aurrez aurre helarazi ahal izango dituzte Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentralean, helbide honetan: Gipuzkoa plaza, z.g., beheko solairua, 220004, Donostia. Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalen sarrera erregistroan ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Gomendioak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak helbide elektroniko, harremanetarako telefono eta arreta bulego espezifikoak jarriko ditu proiektu proposamenak aurkezteko aldiak, interesa dutenek beren proposamenen inguruko informazioa, aholkularitza eta/edo laguntza jaso ahal izateko.

Partaidetza maila egokiak bermatzeko, **lurraldeko eta tematikako irismena izango duen partaidetza prozesuaren mailakako estrategia eta aplikazio koordinatuak** diseinatu beharko dira, honako hau kontuan hartuko dutenak:

- ✓ Lurraldeko eta tematikako topaketen egutegiak.
- ✓ Karpen egutegiaren antolakuntza (topaketentzat aurreikusitako egutegien araberakoa).
- ✓ Ekitaldi bakoitza egin aurreko (karpak eta topaketak) lanaren plangintza, aste bat edo bi lehenago.

Honako hauek izango dira karpen helburuak:

- o Foru aurrekontuen diseinu eta onarpen prozesuarekin lotutako informazioa banatzea eta komunikatzea, baita partaidetzazko aurrekontuak diseinatzeko eta aplikatzeko prozesuaren ingurukoa ere.
- o Herritarren proposamenak jasotzea horretarako gaitutako fitxaren bidez.
- o Lurraldeko eta sektoreko topaketen programazioaren inguruko informazioa ematea.
- o Topaketetara bertaratzeko gonbidapena egitea eta horretara animatzea, aurretik izena emanda edo erregistratuta (Aldundiak pertsonak eta/edo kolektiboak gonbidatu ondoren geratzen den edukieraren arabera).
- o Topaketara joateko interesa izanez gero, erregistro datuak eskatu eta bildu beharko zaizkie interesa dutenei (izen-abizenak, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa).
- ✓ Telefono deiak egitea karpetan erregistratutako pertsonen zerrendakoei gogorarazteko eta bertaratu direla baieztatzeko, edukiera bete arte, lurraldeko eta sektoreko topaketak baino egun **bat edo bi lehenago**.
- ✓ Erantzun mezua prestatzea topaketetara azaldu ezin direnentzat (edukiera mugaren ondorioz).
- ✓ Topaketetako bileraren akta bidaltzea bertaratu direnei eta edukiera faltagatik bertaratu ezin izan direnei.

6. FASEA. Herritarren proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren analisia: 2019ko apirila - 2019ko ekaina.

Aldundiko teknikariek aztertuko dute topaketetan jasotako proposamenek baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak betetzen dituzten. Sailetatik jasotako erantzunen arabera, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak betetzen dituzten proposamenen zerrenda egingo du. Proposamen horiek sailkatuta egongo dira kategoria/gaiaren arabera (sustapen ekonomikoa, gizarte politikak, garraioa eta bide azpiegiturak, landa ingurua eta lurralde oreka, kultura eta beste batzuk: ingurumena, turismoa, kirolak eta abar); jasotzeko bidearen arabera (aurrez aurrekoa, jaso den topaketaren informazioarekin, edo sarekoa); eta kokapen geografikoaren arabera (hala badagokio).

Bideragarritasun tekniko eta ekonomiko egiaztatua duten **herritarren proposamen** guztiak (bir)formulatutakotzat joko dira, partaidetzazko aurrekontuen prozesuaren esparruan **herritarrek hautatu ditzaketen proiektutzat** joko dira.

7. FASEA. Partaidetzazko aurrekontuen prozeduraren bitartez zehazteko erreserbatuko diren gastuen ehunekoa edo zenbatekoa eta partidak: 2019ko uztaila.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluak lurralde historikoko Aurrekontu Orokorren Jarraibide Orokorrak ezartzeko hartuko duen erabakian zehaztuko du zein gastuaren zein ehuneko edo zenbateko eta zein partida erreserbatuko diren partaidetzazko aurrekontuen bitartez erabakitzeke.

8. FASEA. Proiektuak behin betiko hautatzea: 2019ko uztaila - 2019ko abuztua.

Departamentuen arteko batzordeak (DAB) behin betiko hautatuko ditu proiektuak, behar bezala justifikatuta, herritarren proposatutako proiektuen zerrendan oinarrituta.

Zerrenda hori, gutxienez 3 proiektuk eta gehienez 6k osatuko dute (dagokion aurrekontu zenbatespenarekin), aurreikusitako 6 kategoria/gai bakoitzeko:

1. Ekonomia sustapena.
2. Politika sozialak.
3. Garraioa eta bide azpiegiturak.
4. Landa ingurunea eta lurralde oreka.
5. Kultura, kirolak eta gazteria.
6. Zeharkako gaiak/Beste gai batzuk.

Departamentuen arteko batzordeak (DAB) eskumena izango du 6 esparru tematikoetako bakoitzean, gutxienez proiektu bat txertatzeko, bermatzeko honako hauek betetzen direla:

- ✓ Oinarrizko printzipioak: Unibertsaltasuna, zeharkakotasuna, gardentasuna, egiazkotasuna, efikazia, iraunkortasuna, ulerterraztasuna, genero ikuspegia, irisgarritasuna, gobernantza demokratikoa, kontu ematea, fede ona, aukera berdintasuna, ardazte soziala.
- ✓ Etorkizuna Eraikizen esparruan aurreikusitako lanaren erronkak, zutabeak, ardatzak, proiektuak eta metodologiak.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoaren barruan ezarritako lehentasunezko helburuak.
- ✓ 5/2018 Foru Arauan, azaroaren 12koan, Herriarren Partaidetzari buruzkoan jasotako gomendioak eta eskakizunak.

Proiektuak erraz ulertzeko eta horiek herritarren bizi kalitatean egiazko eragina eta irismena izan dezaten:

- ✓ Proiektuak kategoria/gaien arabera ordenatuta/sailkatuta egongo dira.
- ✓ Laburtutako proiektuetako bakoitzean jasoko den informazioak deskribapen labur bat eta aurrekontu zenbatespena jasoko ditu.

Gomendioak:

- o Gero herritarrek hautatzeko aukeratutako proiektuak formulatu eta idatziko dira kasu bakoitzean inguru bakoitzak dituen behar berezietara egokituta (espazializazioa eta lurralde zehaztasuna).
- o Horrenbestez, proiektu bera (posible bada), (bir)formulatu egingo da, esku hartzeko lurraldearen arabera. (Bir)formulazio hori posible ez bada, jatorrizko testua eta deskribapena mantenduko dira.
- o Ez bada egingarritzat eta/edo egokitzen jotzen, Gipuzkoako herritarrek hautatzeko proiektuen formulazioa bakarra izango da, eta eduki berberak izango ditu.

Proiektu bakoitzak informazio gehigarria izango du (gipuzkoa.eus webgunean dagokion atalean jasota egongo da), formatu eta fitxa komun batean. Honako hauek jasoko ditu:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Proiektuaren identifikatzailea (kodea).
3. Irudia.
4. Kategoria/gaia: Sustapen ekonomikoa, gizarte politikak, garraioa eta bide azpiegiturak, landa ingurua eta lurralde oreka, kultura eta beste batzuk: ingurumena, turismoa, kirolak eta abar.
5. Deskribapen laburra.
6. Proiektuaren helburuak.
7. Emaizaren adierazleak, proiektuaren eragina neurtzeko aukera emango dutenak.
8. Espero diren onurak/detektatutako beharrak.
9. Aurrekontu zenbatespena.
10. Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa.

11. Jasangarritasun ekonomiko eta finantzarioa.
12. Proiektuaren irismena: tokikoa, tokikoaren gainekoa, lurraldekoa.
13. Fitxategi interesgarriak (aukerakoa).
14. Irudi galeria (aukerakoa).

9. FASEA. Herritarrek proiektuak hautatzea: 2019ko iraila.

Zein dira prozesu honetako mugarri nagusiak?

Herritarrek proiektuak hautatzeko **2-3 asteko epea izango dute**, eta honako hauek izango mugarri data nagusiak:

- ✓ Hautatu beharreko proiektuak jasoko dituzten esku orriak diseinatzea eta inprimatzea (birformatuta eta lurralde bakoitzaren errealitatera egokituta, egingarritzat eta egokitut jotzen bada). Ez bada egingarritzat eta/edo egokitut jotzen, Gipuzkoako herritarrentzako paperezko formatuko esku orria bakarria izango da, eta eduki berberak izango ditu.
- ✓ Ekimen honekin ukitu nahi diren Gipuzkoako udalerrietako karpene egutegiaren programazioa.
- ✓ Esku orriak modu programatuan eta sekuentzialean banatzea, karpak jarri baino aste batzuk lehenago.
- ✓ Formulario digitala prestatzea, sareko partaidetza errazteko. Formulario digitalaren bidezko partaidetza (ekingarritzat eta egokitut jotzen bada soilik) lurraldearen espazializazioaren irizpideek eraundu ahal izango dute: Erroldako datu pertsonalaren arabera, pertsona bakoitza kokapen geografiko bakoitzaren arabera egokitutako proiektuen zerrenda birformatura bideratuko du. Ez bada ekingarritzat eta/edo egokitut jotzen, Gipuzkoako herritarrentzako formulario digitala bakarria izango da, eta eduki berberak izango ditu.

Nork parte hartu ahal izango du prozesu honetan?

Prozesuan parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako lurralde historikoko udalerriren batean erroldatutako 16 urtetik gorakoek, 5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren, 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zertan datza prozesua?

- ✓ Parte hartzaileek (gehienez) proiektu bat (bakarra) hautatu ahal izango dute hasieran aurreikusitako 6 kategoria/gaietako bakoitzean: Sustapen ekonomikoa, gizarte politikak, garraioa eta bide azpiegiturak, landa ingurua eta lurralde oreka, kultura eta beste batzuk: ingurumena, turismoa, kirolak eta abar.
- ✓ Pertsona batek ezingo ditu kategoria/gai bereko bi proiektu edo gehiago aukeratu.
- ✓ Pertsona bakoitzak (edozein partaidetza bide erabili duela ere) behin bakarrik hartu ahal izango du parte.
- ✓ Pertsona batek ez baditu ematen eskatutako eta beharrezko datuak egiaztatzeko Gipuzkoako lurralde historikoko udalerriren batean erroldatuta dagoela, kategoria/gai bereko bi proiektu edo gehiago hautatzen baditu edo bitan edo gehiagotan parte hartzen badu gaitutako bide beretik edo ezberdinetatik, haren parte hartze guztiak baliogabetuko dira eta ez dira zenbatuko.
- ✓ Herritarrek parte hartzeko honako bide hauek aurreikusi dira:

- o **Herritarren proposamenak aurrez aurreko karpetan jasotzea.** Herritarren bere proiektuen aukeraketa duen esku orria aurrez aurreko karpetan horretarako gaitutako kutxa batean sartu ahal izango du.
- o **Herritarren proposamenak sareko formularioaren bitartez jasotzea.** Herritarrek hautatutako proiektuak gipuzkoa.eus atarian dagoen formulario digitalaren bidez helarazi ahal izango dituzte.
- o **Herritarren proposamenak postaz edo arreta bulegoan jasotzea.** Herritarrek beren aukeraketa duen esku orria postaz edo aurrez aurre aurkeztu izango dute Herritarren Informazio eta Arreta Bulego Zentralean, helbide honetan: Gipuzkoa plaza, z.g., beheko solairua, 220004, Donostia. Gipuzkoako lurralde historikoko edozein udalen sarrera erregistroan ere aurkeztu ahal izango dute.

10. FASEA. Azken emaitzak lortzea: 2019ko urria.

- ✓ **Emaitzen txostena** argitaratzea eta bueltatzea. Bertan agertuko da proiektuen zerrenda bat, herritarrek hautatu dituzten aldi kopuruaren arabera antolatuta.
- ✓ Azken txostenak jasoko du partaidetzazko aurrekontuen prozeduraren bitartez zehazteko erreserbatutako gastu partiden kargura **egikarituko diren proiektuen behin betiko zerrenda**.

Gomendioak:

- o Emaitzen txosten horrek konpromisoa hartuko du Gipuzkoako herritarren **eguneroko bizitzan eragin zuzena** izango duten proiektuak egikaritzeko. Eragin zuzen hori ikusarazteak **gerturatu egiten dio** Gipuzkoako Foru Aldundiaren **kudeaketa** lurraldeko herritarrei.
- o Hautatutako behin betiko zerrendan xehatuko dira proiektuaren kargura Gipuzkoako udalerri/lurralde bakoitzean egingo diren ekintzak eta horietako bakoitzak herritarren bizi kalitatean eragingo duen hobekuntzaren aurreikuspena.

11. FASEA. Partaidetza prozesuaren ebaluazioa: 2019ko azaroa-2019ko abendua.

- ✓ Partaidetza prozesua ebaluatzea, 5/2018 Foru Arauaren, azaroaren 12koaren, Herritarren Partaidetzari buruzkoaren, **50. artikuluan** xedatutako irizpideetan oinarrituta.
- ✓ **Ondorioen txosten** bat egitea, azalduko duena partaidetza prozesuan zertan asmatu den eta zein akats egin diren, baita etorkizuneko prozesuetarako egoki iritzitako hobekuntza proposamenak ere.
- ✓ Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak **ebaluazio txostena** helaraziko du, eta hura genero ikuspegitik egingo da. Azalduko da egindako jarduketek zein eragin izan duten genero ikuspegitik. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzorderi helaraziko zaizkio ondorioak, eta horiek argitaratu egingo ditu, baita, egoki iritziz gero, bere iritzia ere.

PROZESUAREN FASEAK	2019											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1. FASEA. Lan talde bat osatzea foru aurrekontu partizipatiboak kudeatzeko departamentuen arteko batzordean (DAB): 2019ko urtarrila.												
2. FASEA. Aurrekontuak egitean herritarrek parte hartzeko prozesuarentzako protokoloa onartzea: 2019ko urtarrila - 2019ko otsaila.												
3. FASEA. Identifikatzea eta definitzea foru aurrekontu partizipatiboetan sartu daitezkeen proiektu guztiek bete beharreko baldintzak: 2019ko otsaila.												
4. FASEA. Aurrekontu partizipatiboen aurreko eta prozesuaren bitarteko komunikazio estrategia bat diseinatzea eta egikaritzea: 2019ko otsaila - 2019ko abendua.												
5. FASEA. Herritarren proposamenak biltzea: 2019ko martxoa.												
6. FASEA. Herritarren proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren analisia: 2019ko apirila - 2019ko ekaina.												
7. FASEA. Aurrekontu partizipatiboen prozeduraren bitartez zehazteko erreserbatuko diren gastuen ehunekoa edo zenbatekoa eta partidak: 2019ko uztaila.												
8. FASEA. Proiektuak behin betiko hautatzea: 2019ko uztaila - 2019ko abuztua.												
9. FASEA. Herritarrek proiektuak hautatzea: 2019ko iraila.												
10. FASEA. Azken emaitzak lortzea: 2019ko urria.												
11. FASEA. Partaidetza prozesuaren ebaluazioa: 2019ko Azaroa-2019ko abendua.												

6. Kronograma